LEHENENGO ATALA

Esparru antropologikoa, etikoa eta juridikoa

1. Esparru kontzeptuala eta antropologikoa

ZER DA?

Emakumeen genitalen mutilazioa (EGM) deitzen zaie emakumeen kanpoko genitalak erabat edo partzialki kentzeko modu guztiei, edo emakumeen organo genitaletan eragindako bestelako aldaketei, betiere arrazoi terapeutikoengatik egin beharrean, arrazoi kulturalengatik edo bestelakoengatik egiten bada. "Jardunbide tradizional kaltegarriak" (JTK) izen orokorragoaren barruan sartzen da jardunbide hori, beste honako hauekin batera: haurren ezkontza goiztiar eta behartua, abortu selektiboa, emakumeak behartuta elikatzea eta abar. Garrantzitsua da jakitea EGMa egiten duten tokietan bestelako JTKk ere egin ohi dituztela.

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran hasi ziren mutilazio terminoa erabiltzen horrelako jardunbideei dagokienez, emakumeen zirkunzisioa edo klitoriaren ablazioa terminoen ordez, emakumeen osasunean egiten den kalte konponezina nabarmentzeko. 1991. urtean Addis Abeban izan zen Emakumeen eta haurren osasunari eragiten dioten Jardunbide Tradizionalei buruzko Inter Afrikar Batzordearen Hirugarren Konferentzian erabaki zen, eta urte berean, Nazio Batuen eremuan termino hori erabiltzeko gomendioa egin zuen Osasunaren Mundu Erakundeak (OME)[4].

"Mutilazio" hitz deskribatzailea erabiltzeak indartu egiten du emakumeen eta nesken eskubideen urraketarekin lotutako konnotazio negatiboa, eta horregatik, nazioarteko komunitateak eta Afrikako emakumeen elkarteek onartu egin dute hitz hori. Alabaina, horrelako jardunbideak mesedegarri direla uste dutenentzat deserosoa da termino hori, jardunbide horiek "aitatasun" patriarkaleko ekintzekin lotzen baitituzte, eta haien ustez, jardunbide horiek euren alabak hazteko eta gizartean onartzeko xedea dute, edo haien arteko ezkontza-protokoloekin lotuta daude.

Afrikako herrialdeetako zenbait adituk uste du mutilazio terminoak konnotazio negatiboegia duela eta, hortaz, nahiago dute "cut", "ebakia" hitza erabili, neutroagoa delakoan; eta, hain justu, horregatik, EGMa egiten duten herrialdeetakoak diren pertsonekin hitz egiteko garaian hitz neutroago hori erabiltzea gomendatzen du Nazioarteko Garapenerako Estatu Batuetako Agentziak (USAID)[5].

Gidaliburu honetan, EGM terminoa erabiliko dugu, horrelako jardunbideak orokortuta dauden herrialdeetako emakume askok lortutako kontzientzia-mailarekin bat baitator, baina horregatik eta aldi berean, oraindik ere tradizio horri jarraiki bizi direnekiko errespetua alde batera utzi gabe.

---

4 Unicef, Changing harmful Social Convention: female genital mutilations/catting, Innocenti Digest 2005.

5 Yoder, P, Nourreddine Abderrahim, and Arlinda Zhuzhuni, Female Genital Cutting in the Demographic and Health Surveys: A critical and Comparative Analysis, Demographic and Health Surveys (DHS), Comparative Reports n. 7, 2004.

ZER MOTA DAUDE ETA ZENBAT URTEREKIN EGITEN DA?

1995. urtean, OMEk lau EGM mota finkatu zituen[6]:

I. mota: Klitoria eta/edo prepuzioa osorik edo zati batean erauztea (klitoridotomia). Kultura islamiarrean, sunna (tradizio) bat da eta gizonezkoen zirkunzisioaren parekotzat jotzen da.

II. mota: Klitoria eta ezpain txikiak erabat edo zati batean erauztea, eta agian ezpain handiak ere motz daitezke (eszisioa).

III. mota: Bagina-zuloa txikitzea zigilu bat sortzeko, ezpain txikiak edo handiak ebaki eta berriz kokatuta, eta klitoria erauzita edo erauzi gabe (infibulazioa edo zirkunzisio faraonikoa). Bi zulo txiki uzten dituzte, gernua eta hilekoaren odola ateratzeko.

IV. mota: Kanpoko genitalak kaltetzen dituzten gainerako prozedura guztiak, xede medikorik izan gabe; hala nola, eremu genitala zulatzea, ebakitzea, urratzea, kauterizatzea edo substantzia korrosiboak sartzea.

2007. urtean, OMEk berak berraztertu egin zuen sailkapen hori, eta hainbat ñabardura eta azpi-sailkapen txertatu zituen. I. motaren barruan, klitoria bera edo soilik prepuzioa kaltetu den bereizi dira; II. motaren barruan, mutilazioa klitoriari, ezpain handiei edo ezpain txikiei dagokien. III. motari dagokionez, bagina-zuloa txikitzeari eman dio garrantzia, organoak ezabatzeari baino gehiago, eta azpi-sailkapenak egitea proposatu du, prozeduran ezpain handiak edo ezpain txikiak mutilatzen diren arabera.

Nesken adinari dagokionez, denetarik ikus daiteke: Egipton, nesken % 90 baino gehiago 4 urtetik 15 urtera bitarte "mutilatzen" dituzte; Etiopia, Mali eta Mauritanian, 5 urte bete aurretik (nesken % 60); Yemenen, nesken % 76 jaio eta bi asteren buruan mutilatzen dituzte. Herrialde beraren barruan ere alde handiak aurki daitezke: esate baterako, Sudanen, hegoaldean (Darfur) neskek 9-10 urte dituztenean jasaten dute mutilazioa (kasuen % 75); aitzitik, Kassalan nesken % 75 4-5 urte dituztenean mutilatzen dituzte. Kasu arraroagoak ere badira; adibidez, EGMa haurtzaroan egin ez zieten neskei gerta daiteke nerabezaroan, ezkontzen direnean edo, baita ere, haurdun geratzen direnean edo erditzen direnean egitea[7]. Azkenaldiko azterlanetan agerian geratu da EGMa egiten zaien neskak gero eta txikiagoak direla; horren arrazoi izan daiteke errazago ezkuta daitezkeela jardunbide horiek debekatuta dauden tokietan, eta neskek ere aurka egiteko aukera gutxiago izaten dutela[8].

---

6 Diagnostikoa. Emakumeen Genitalen Mutilazioa Euskal Autonomia Erkidegoan. Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea, 2014ko ekaina.

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/eu_emakunde/adjuntos/txostena.35.diagnostikoa_egm_eae.pdf

7 UNICEF, op. cit. e Yoder, P. Ed altri, op. cit.

8 H. Lightfoot-Klein, prisoners of ritual: some contemporary developments in the History of female Genital Mutilation, paper presentato al Secondo Simposio Internazionale sulla Circoncisione a San Francisco 30 aprile-3 maggio 1991; E. Bilotti, La pratica della Mutilazione genitale femminile, Mediterranean Review n. 3 1997.

NON EGITEN DA ETA NORK EGITEN DU?

EGMa Saharaz hegoaldeko Afrikako 29 herrialdetan, Ekialde Ertaineko zenbait herrialdetan (Irakeko Kurdistan, Yemen) eta Asiako zenbat herrialdetan ere aurki daitezke EGMaren zantzuak (Indonesian, Malaysian edo Indiako zenbait tokitan)[9]. Hala ere, globalizazioaren eta migrazio-mugimenduak areagotzearen ondorioz, EGMa diasporan dago eta, horregatik, mundu osoan zabaldu da: Europara, Kanadara, Estatu Batuetara eta Zeelanda Berrira ere iritsi da (UNICEF, 2005).

EGMa munduan



Iturria: UNFPA, 2015[10]

- Countries with FGM data collected by household surveys.
- Countries in with FGM has been reported.
- Countries in with FGM has been reported among some inmigrant communities.

Datuak bereizita aztertuz gero, zabalkundea oso desberdina dela ikusiko dugu, bai kontinentearen barruan, bai herrialdeen artean, bertan bizi diren talde etnikoen, urbanizazio-mailaren eta emakumeen eskolatze-mailaren arabera. Horregatik, herrialdeen araberako prebalentzia oso aldakorra da: Ugandan % 1 baino ez da, baina Somalian % 98. Prebalentzia aldakor hori herrialde bakoitza osatzen duten etnien araberakoa da, batez ere. Zenbait etniak EGMa egiten dute, eta beste zenbaitek ez. Hori dela-eta, herrialde bakoitzeko prebalentzia etnia jakin batzuetako biztanleriak beste batzuen gain duen garrantziaren araberakoa da, funtsean.

---

9 www.state.gov/g/wi/rls/rep/9276.htm

10 "Demographic Perspectives on Female Genital Mutilation", UNFPA, 2015.

15-49 urteko emakumeen EGMaren prebalentziaren mapa[11]



Iturria: UNICEF, 2013.

Zenbait herrialdetan, hala nola, Egipton, Ginean eta Somalian EGMa jasan duten 15-49 urteko emakumeak % 90 baino gehiago dira; Mali, Sudan eta Eritrean, % 80tik % 90era bitarte dira; eta Burkina Faso, Etiopia eta Mauritanian % 69tik % 80ra bitarte. Beste zenbait herrialdetan, nazioko tasak askoz ere txikiagoak dira, baina herrialde horien barruan metaketa handiak gertatzen dira hainbat eskualdetan.

Hortaz, argi eta garbi utzi nahi dugu Afrikako herrialde guztietan ez dela EGMa egiten, eta herrialde beraren barruan ere **talde etniko** guztiek ez dutela egiten. Senegalgo kasua hartuko dugu adibidetzat: emakumeen % 28 izaten dira mutilatuak, biztanleriaren gehiengoa wolof etniakoa izanik ere, eta etnia horrek ez du EGMa ohiko moduan egiten. Etnia bateko kide izatea da faktore erabakigarriena EGMaren prebalentziari dagokionez.

---

11 UNICEF. 2013. *"Female Genital Mutilation/Cutting: A statistical overview and exploration of the dynamics of change"* New York.

Tradizioen artean EGMa egiteari eusten dioten talde etniko gehienetan, emakume ia guztiak mutilatu dituztela ikus daiteke. Horregatik, herrialdeaz gain, etniak ere aintzat hartu behar dira zeren, oro har, EGMa egiten duten herrialdeen barruan egon baitaiteke EGMa egiten ez duen talde etnikorik. Etnia ezagunenak honako hauek dira[12]:

- EGMa egiten duten etniak: Sarahule, Djola, Mandinga, Fulbé, Soninke, Bámbara, Dogon, Edos, Awusa, Fante.

- EGMa egiten ez duten etniak: Wolof, Serer, Ndiago.

Zerrenda hori orientagarri izan daiteke, baina ez dugu ahaztu behar EGMa egiten duten etnietakoak izanik mutilatu gabe dauden emakumeak aurki ditzakegula, baita alderantziz ere; EGMa egiten ez duten taldeetako emakumeak mutilatuta egotea. Ezkontza mistoengatik izan daiteke hori: talde etniko desberdinetakoak diren gizonak eta emakumeak. Horrela, bada, EGMa egiten ez duten talde bateko emakume bat EGMa egitea tradizioa den talde bateko gizon batekin ezkontzen bada, ziurrenik mutilatu egingo zuten ezkondu ahal izateko.

Dena dela, kontuan izan behar dugu EGMa egiten duten herrialde bateko talde etniko guztiek ez dutela zertan EGMa egin, eta egiten duten etnia guztiek ere ez dutela modu berean egiten. EGMa nazio-testuinguruetan neurtzen den arren, egia esan, EGMa oso zabalduta ez dagoen herrialdeetan eskualde oso zehatzetan metatzeko eta faktore etnikoaren baldintzapean egoteko joera dago, eta gorabehera handiak izaten dira herrialdeen artean. EGMa talde etniko jakin bateko kide izatearekin lotze horrek zera adierazten du, gizarte-arloko faktoreek –komunitateetako arau eta itxaropenak– eginkizun oso garrantzitsua betetzen dutela EGMa iraunarazten (UNICEF, 2013).

EGMa nork egiten duen aztertzen badugu, zalantzarik gabe, herrialde guztietan, EGMa neskei egiten zaie amek, aitek eta komunitate osoak uste osoa dutelako jardunbide horretan eta hala nahi dutelako. Behin eta berriz errepikatzen da ezaugarri bera: gizonak, erabakiak benetan hartzeko ahalmena duten arren, ikusezin bihurrarazten dituzte.

EGMa egiten duten herrialdeetan, ohiko moduan adinekoak diren eta boterea duten emakumeek egiten diete EGMa neskei, oinarri-oinarrizko tresnak erabilita eta baldintza higieniko oso txarretan, anestesiko eta desinfektatzaile naturalekin, eta horren truke diru-irabaziak izaten dituzte[13]. Erritu hori medikalizatzeko joera areagotzen ari da eta, horren ondorioz, EGMa osasun-egituraren barruan egiten hasi da, osasun-langileen aldetik. Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar jardunbide horren bitartez pertsonaren –kasu gehienetan, neska adingabearen– zati garrantzitsu baten funtzionaltasuna hondatzen dela inolako xede terapeutikorik gabe, eta mendebaldeko eta Afrikako herrialde gehienetako legerian debekatuta dagoela, baita komunitate zientifikoan ere.

---

12 "Guía para profesionales. La MGF en España, prevención e intervención" UNAF, Madrid 2013.

13 Bilotti, E. op. cit.; Yoder, P. op. cit.

NOIZTIK ETA ZERGATIK EGITEN DA?

EMAKUMEEN GENITALEN MUTILAZIOAREN JATORRI HISTORIKO-KULTURALAK

EGMa antzina-antzinatik egiten da. Hainbat testigantzaren arabera, antzinako Egipton aurkitu izan dira arrastoak, eta horren adierazgarri da "zirkunzisio faraonikoa" esamoldea; geroago, antzinako Erroman sortu zen, antza, infibulazio terminoa, fibula (orratza) hitzetik, eta bi sexuetako esklabo gazteei ez ezik, gladiatore gazteei eta emakumezko esklabo gazteei ere aplikatzen zitzaien, sexu-harremanik izan ez zezaten eta haurdun ez geratzeko. Herodoto horren gainean mintzo da: feniziarrek, hititek, etiopiarrek eta egiptoarrek ere egiten omen zuten. Antzinako medikuntza-literaturan ere aipatzen da: Alesserian eta Erroman jarduten zuen mediku greko batek xehetasun handiz deskribatu zituen zer tresna erabiltzen ziren; aldiz, Aecio medikuak ebakuntzaren faseak deskribatu zituen. "Biek diote helburua sexu-desira gutxitzea zela"[14].

Hipotesi gehiago ere egin litezke, guztiak egingarriak izanik, baina honako hau egia da: ez zen Islama izan EGMa Afrikara eraman zuena, lehendik ere bai baitzegoen. Tribuen jardunbideak dira eta zenbait komunitate islamiarretan –baina ez guztietan, egia esan behar bada– onartuak izan dira eta, batzuetan, printzipioen bereizketarekin. Alabaina, EGMaren zabalkundearen eta erlijioaren arteko erlazioa egiaztatzen duen froga historikorik ez dago; izan ere, jardunbide hori oso zabalduta dagoen herrialdeetan musulmanen nahiz kristauen artean berdin-berdin hedatu da (hurrenez hurren, % 99,4 eta % 93,8 Ginean; % 91,9 eta % 75,5 Malin; % 77,9 eta % 66,0 Burkina Fason). Jardunbide horiek zabaltzearen arrazoiak badirudi lotura handiagoa duela jatorri etnikoarekin[15].

Jardunbide tradizional horiek erlijioarekin duten lotura ez da oso garrantzitsua, baina jardunbide tradizional horiek eginkizun askoz ere garrantzitsuagoa betetzen dute genero-nortasuna zehazteko garaian eta etnia-kidetasuna eratzeko garaian, baita sexuen eta belaunaldien arteko harremanak finkatzeko garaian ere.

Haurtzarotik helduarorako igarobidea markatzen duten tradizioetako bat da EGMa, "emakume" bihurtzeko erritua. Gizartean eratutako genero-nortasun horrek nortasun biologikoari emango lioke zentzua, gorputza fisikoki manipulatuta, hau da, emakumeen genitaletatik "arra" (klitoria) ezabatuta. Manipulazio horren ondorioz, neskek eta etorkizuneko emakumeek mugimendu lasaiak, zuhurrak egin behar izaten dituzte jasandako lesioengatik, oinez ere mantso ibili behar izaten dute, eta elementu horiek bat datoz emakumeei gizartean esleitzen zaien eginkizunarekin. Manipulazio horren ondorioz, txiki-txikitatik neskak eta mutikoak nahasteko modu guztiak mugatzen dira, neskek ezin baitituzte egin norberaren gorputzaren adierazpen librea eskatzen duten joko horiek guztiak Herrialdearen arabera hein handiagoan edo txikiagoan zehaztuta egoten da erituala, eta amagandik alabarengana transmititzen da, emakumeen belaunaldi batetik

---

14 Bilotti, E. op. cit.

15 Yoder, P., ed altri, op. cit.

hurrengora, emakumeen mundu baten barruan eta ebakuntza egin ostean soilik zabaltzen da komunitatera mundu femenino hori; baina komunitate horrek, aldi berean, presio handia egiten du emakume guztiengan, erabakia hartzeko garaian[16].

EMAKUMEEN GENITALEN MUTILAZIOAREN ARRAZOIAK

- **Soziokulturalak**

  Zenbait komunitatetan uste dute emakumeari klitoria kendu behar zaiola helduarora iristeko eta komunitatean eskubide osoko kide bihurtzeko. EGMa emakumearen sexualitatea kontrolatzeko modu bat ere bada; izan ere, genitalen zati bat kenduz gero, emakumeak birjina eta garbia izaten jarraituko omen du. "Emakumea araztea" ere esan nahi du bere kanpoko genitalei dagokienez; izan ere, zenbait tradiziotan, kanpoko genitalek eragin negatiboa omen dute emakumearen osasun mentalean ez ezik, senarraren eta, etorkizunean, seme-alaben bizimoduan ere. Kultura-testuinguru horretan, EGMaren bitartez emakumeak ezkondu egin daitezke eta ezkontzak, komunitate askotan, emakumeari aukera ematen dio lurra lortzeko eta, hortaz, bizirauteko. EGMarekin lotutako sinesmen eta balioen transmisioa presiopean egiten da, komunitate osoak belaunaldi gazteenengan eta haien familiengan presio sozial handia egiten baitute. Adineko emakumeek eginkizun oso garrantzitsua betetzen dute; oro har, agintea izaten dute eta komunitate osoak errespetatzen ditu emakume horiek, eta EGMaren bitartez diru-iturri bat ziurtatuta izaten dute.

- **Higienikoak eta estetikoak**

  EGMa egiten duten komunitateei dagokienez, emakumeen kanpoko genitalak itsusiak eta kaltegarriak direla uste dute; haien ustez, genital horiek behar bezala murrizten ez badituzte, handitzen jarraituko dute eta emakumearen bizitza asko baldintzatuko lukete. Kanpoko zatiak gehiago edo gutxiago kenduta emakumea ederragoa da estetikari dagokionez, eta garbiagoa higieneari dagokionez; edertasunaren kontzeptu horrek espirituaren garbitasuna adierazten duen esanahi sakonagoa du.

- **Espiritualak eta erlijiosoak**

  Zenbait komunitatetan, betebehar hori erlijioaren agindutzat hartzen dute eta, beraz, EGMa egitea nahitaezkoa dela uste dute, emakume gazteek espiritu garbia izan dezaten. Zenbait komunitate musulmanen arabera, jardunbide horiek Koranaren agindu dira baina hori ez da egia, inondik inora ere. Testu sakratuetan ez da horrelako eskakizunik agertzen.

- **Psikologikoak eta sexualak**

  Zenbait komunitatetan, EGMa egin beharraren alde agertzen dira emakume gazteengan neurrigabeko sexu-jarduera saihesteko, klitoria gehiegi hazteagatik; zeren klitoria gehiegi haziko balitz, sexu-desira areagotu egingo bailitzateke. Hortaz, EGMa ezinbestekoa omen da neska gazteak birjin izateko ezkondu arte, baita gizonak eta komunitate osoa babesteko ere, sexu-bizitza libertinorik izan ez dezaten. Gainera, bagina txikituta gizonak sexu-harremanetan plazer handiagoa izan dezakeela uste dute; beraz, desleialtasuna eta dibortzioa saihesteko bidetzat ere hartzen dute. Zenbait komunitateren arabera, EGMa lagungarri izan daiteke ugaltzeko.

---

16 Pasquinelli, C, (a cura) Antropologia delle Mutilazioni genitali femminili, AIDOS; 2000.

ZER ONDORIO ERAGITEN DITU OSASUNEAN?

Nazioarteko erakundeak (OME, UNICEF, UNFPA) eta Estatuak –mendebaldekoak, Afrikakoak edo Ekialde Ertainekoak izan– bat datoz ideia honekin: EGMa egitea emakumeen osotasun fisikoaren, psikikoaren eta moralaren urraketa larria da, oinarrizko giza eskubideetako baten urraketa larria; hain zuzen ere, osasunerako eskubidearena.

Azterlan ugariren bitartez eta eguneroko jardun medikoan frogatuta dago EGMa egiteak ondorio larriak eragiten dituela nesken eta emakumeen osasun fisiko eta mentalean, gaixotasunak ere sor baitaitezke mutilazioaren larritasunaren arabera egon daitezkeen konplikazioengatik; EGMa egiteko higiene-baldintzengatik; emakumeak, oro har, bizi diren baldintzengatik; eta baita EGMa egiten duenaren trebetasunagatik ere.

EGMak ondorio ugari izan ditzake, epe labur, ertain eta luzean. Konplikazio mota mutilazio-mailaren araberakoa izango da; infibulazioa jasan duten emakumeen kasuan konplikazioak larriagoak izaten dira.

BEREHALAKOAK	EPE ERTAIN ETA LUZEAN
Min bizia	Alterazio ginekologikoak: baginako infekzioak, pelbisekogaixotasun inflamatorioa, hematokolposa, dismenorrea.
Odoljarioa	Gernu-alterazioak: gernubideetako infekzioak behin eta berriz, pielonefritisa, gernu-ihesa, gernu-erretentzioa.
Shock hipobolemikoa, heriotza	Fistula ginekologikoak. Ehunen orbaintze anomaloa (fibrosia, orbain keloideak.
Ondoko organoetan lesioak	GIBak, BHBak edo CHBak eragindako infekzioak.
Gernu-erretentzioa	Anemia.
Tokiko infekzioa	Dispareunia, sexu-sentikortasuna gutxitzea.
Septizemia	Antzutasuna.
Tetanosa	Konplikazio obstetrikoak: erditze luzeak, perineoko urradurak, erdiondoko odoljarioa, zesarea-tasa handiagoa, eta jaiotza-inguruko heriotza- eta gaixotze-tasa handiagoak.
Beldurra, larritasuna	Lotsa-sentimendua, larritasuna, trauma osteko estresa, depresioa.

Beste alde batetik, gizarte osoaren uste sendoa izaki, amek bultzatu egiten dute eta betikotu egiten da komunitatearen gainerakoak egiten duten horretara egokitzeagatik; bestela, neskatila mutilatzen ez bada, ez da prest egongo heldu izateko, ezin izango du ezkondu, ez du seme-alabarik izango, gizarteak baztertu egingo du eta abar. Tamalez, gure gizartean argudio hori gainditzen ari da, eta agian, ondorio mingarriena nahasmendu psikologikoak izan daitezke, mutilazio hori lotsagarri eta iraingarritzat hartzen baitute neskek: gainerako neskekin alderatuta, EGMak desberdin egiten ditu, eta mendebaldeko ikuspegiaren arabera edo neskak mutilatzen ez dituzten beste etnia edo herrialde batzuetatik etorritako gizon migratzaileentzat ez dira hain erakargarriak sexualki.

2. Kasuistika

INTZIDENTZIA/PREBALENTZIA

EGMari buruzko munduko datuak benetan ikaratzeko modukoak dira: 130 milioitik 140 milioi emakumera bitartek jasan dute genitalen mutilazioa, 3 milioi neska egoten dira urtero mutilatzeko arriskuan, 8.000 neska mutilatzen dituzte egunero, eta 29 herrialdek osatzen dute EGMa egiten dutenen gehiengoa, baina jardunbide hori unibertsala da gaur egun[17].

Dena den, komeni da gogoratzea zifra horietan EGMaren mota eta hedadura guztiak sartzen direla, eta I. mota dela gehien egiten dena. Gidaliburu honetan esan dugunez, EGMaren ondorioak asko aldatzen dira mota batetik bestera eta, zehazki, I. motaren barruan sartzen dira prepuzioaren eszisioak baina klitoriari eragin gabe. Ez dakigu ziur zenbat diren, baina estatistiketan eta prebalentziaren eta intzidentziaren estimazioetan azken horiek ere sartzen direla izan behar dugu kontuan. Hastings Center-en 2012ko txosten baten arabera, *"...GMEa desagerrarazteko grina dela-eta, mutilazioaren kontrako erakundeek Afrikako emakumeen genitalen mutilazioari buruz esaten dituzten gauzak ez dira zehatzak izaten, edo orokorregiak izaten dira, edo ez dira kasu gehienetan aplikatzeko modukoak izaten"*[18].

Wassu Fundazioak Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearentzat txosten bat egin zuen 2014ko ekainaren 30ean: *Diagnostikoa. Emakumeen Genitalen Mutilazioa Euskal Autonomia Erkidegoan*; txosten horretan jasotzen denez, migrazioen ondorioz EGMa ez da egiten soilik tradizionalki egin izan den herrialdeetan, baizik migratzen dutenen "kultura-ondare" moduan bidaiatzen du; hortaz, egun tokikoa globala dela dioen kontsignari jarraiki, EGMa diasporan dagoela esan dezakegu.

EGMa tradizionalki egiten duten herrialdeetan prebalentzia inkesta espezifikoen bitartez neurtzen da: Demographic and Health Surveys (DHS) eta Multiple Indicator Cluster Survey (MICS); aldiz, diaspora afrikarraren herrialdeetan hurbilketa demografikoa egin ohi da –erroldako datuak, esaterako–, osasun-erregistroak ez direlako beti baliodunak, EGMa ez baita beti erregistratzen[19], jardunbide horren arretarako eta prebentziorako prestakuntzarik ez izatearen ondorioz. Horregatik, Espainiako Estatuan informazio-iturri pribilegiatu batera jotzen da: Espainiako Biztanleriaren Errolda Jarraitua; etorkinak aztertzeko estatistika-iturri egokia da, errolda horretan erregistratzeko aukera izaten baitute egoera juridiko-administratiboa edozein izanik ere. Horretaz gain, bizileku-baimen iraunkorrik ez duten

---

17 Mora, Luis, UNFPA-Nazio Batuen Biztanleria Funtsa, Bilbon emandako hitzaldia, Bizkaiko Osasuneko Lurralde Ordezkaritza, 2015eko azaroaren 16a.

18 Hastings Center Reprt. Seven Things to Know about Female Genital Surgeries in Africa.

19 EUROPEAN INSTITUTE FOR GENDER EQUALITY (EIGE) (2013) Female genital mutilation in the European Union and Croatia, Luxemburgo, Publications Office of the European Union.

Erkidegotik kanpoko atzerritarrek bi urtean behin berritu behar dutenez erroldako erregistroa, biztanleriaren mugimendu mota horren berri eguneratua izateko aukera dago.

EGMaren DATU DEMOGRAFIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

2012ko urtarrilaren 1eko Espainiako Biztanleriaren Errolda Jarraituan bildutako datuak aztertu ziren 2012ko Espainiako Emakumeen Genitalen Mutilazioaren Mapan; horren arabera[20], EGMa egiten duten herrialdeetatik etorri eta Espainiako Estatuan bizi ziren 224.000 pertsonen artetik 11.000 pertsona Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren. Aldi berean, nazionalitate horiek EAEn bizi ziren 140.000 atzerritarren % 6,9 osatzen zuten.

EGMa egiten duten herrialdeetatik iritsitako etorkin gehien zituen zazpigarren autonomia-erkidegoa zen Euskadi, eta EGMa egiten duten herrialdeetatik iritsitako 10.000 pertsona baino gehiago zeuden Katalunian, Madrilen, Andaluzian, Valentziako Erkidegoan, Aragoin, Kanariar Irletan, EAEn eta Balear Uharteetan.

2008tik 2012ra bitarte, EGMa egiten duten herrialdeetako nazionalitatea zuten emakumeen populazioa asko handitu zen: EAEn eta Gaztela-Mantxan bikoiztu egin zen. 15 urtetik beherako neskei dagokienez, EAEn hirukoiztu egin zen populazioa, Kantabria eta Gaztela-Mantxaren maila berean, eta Asturiasko Printzerriak soilik gainditu zituen.

2012an, jatorri horietako 3.000 emakume baino gehiago bizi ziren EAEn, eta EGMa egiten duten herrialdeetatik iritsi eta Espainiako Estatuan bizi ziren 57.000 emakumeen % 5,5 osatzen zuten. Emakumeen populazioak hazkunde erlatibo bizia izan zuen. 2008-2012 aldian, 1.800 emakume gehiago ziren, hau da, hazkundea % 142,1 izan zen; aldiz, Estatu osoan % 40ko hazkundea izan zen aldi berean. 15 urtetik beherako 800 neska baino gehiago zeuden, eta 2008. urtearekin alderatuta % 198,5eko hazkundea izan zen, 500 neskatik gora iritsi baitziren; Espainiako Estatuan hazkunde-erritmoa % 61,4 izanik, EAEkoa nabarmen handiagoa izan zen.

Nazionalitate horietako biztanleriaren guztizkoari dagokionez, Senegal zegoen lehen postuan (3.000 pertsona baino gehiago), eta bigarrenean Nigeria (2.000tik gora). Gutxi gorabehera 1.000 pertsona Mauritania, Kamerun, Ghana eta Malikoak ziren. Alabaina, nazionalitate horietatik datorren biztanleriari dagokionez, alde garrantzitsuak daude sexuaren araberako banaketan; izan ere, emakumeei buruz ari bagara, gehiengoa nigeriarra da, Senegal bigarren postuan utzita, Espainiako joerari jarraiki. Atzetik datoz Mauritania, Kamerun eta Ghana. EAEren berezitasuna da Mauritania, Kamerun eta Ginea-Bissauko emakumeen populazioak gehiegizko ordezkaritza duela erlatiboki. Gehiegizko ordezkaritza erlatiboa zera da, autonomia-erkidego batean bizi diren jatorri jakin bateko emakumeen proportzioa jatorri horretako populazioaren guztizkoari dagokionez handiagoa denean komunitate horrek Espainiako Estatuan duen guztizko biztanleriaren (EGMa) garrantzia baino.

---

20 (Kaplan y López, 2013).

Jatorri nazionalari erreparatuta, 2008tik 2012ra Nigeriatik etorritako emakumeen kopurua 400dik 1.061era handitu zen; Senegalen kasuan, 175 emakumetik 510 emakumera; Mauritaniaren kasuan, 150 emakumetik 353 emakumera; Kamerunen kasuan, 125 emakumetik 311 emakumera; Ghanaren kasuan, 60 emakumetik 180 emakumera; Kongoko Errepublika Demokratikoaren kasuan, 75 emakumetik 149 emakumera; Ginea Bissauren kasuan, 100 emakumetik 147 emakumera; eta Maliren kasuan, 40tik 143ra. Gainerako nazionalitateen kasuan, 100 emakume baino gutxiago zituzten EAEko udalerrietan erroldatuta.

EGMa egiten duten herrialdeetatik datozen emakumeen guztizkoari dagokionez, EAEn 2012an dauden emakumeen ehunekoa nazionalitatearen arabera



Iturria: Wassu Fundazioak egin du UNICEF, 2013 eta Kaplan eta López, 2013 lanetan oinarrituta.

15 urtetik beherako nesken populazioak oro har emakumeen joerari jarraitzen zion, nazionalitatearen araberako ordezkaritzari dagokionez. 2008-2012 aldian, neska nigeriarrak laukoiztu egin ziren, guztira 268 izanik; senegaldarrak hirukoiztu (142) eta Mauritaniako neskatilak bikoiztu egin ziren (95).

Demografiaren bilakaerari erreparatu eta aurreko paragrafoetan aipatu ditugun 2012ko datuak EINek emandako 2014ko urtarrilaren 1eko Biztanleriaren Errolda Jarraituaren Estatistikaren datuekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu EGMa egiten duten herrialdeetatik datorren populazioa etengabe handitzen ari dela EAEn. 2012an 3.171 emakume ziren guztira, eta 2014an, aldiz, 3.680.

1 Taula. EGMa egiten duten herrialdeetatik etorritako emakumeak EAEn, 2012- 2014

NAZIONALITATEA	2014KO DATUAK	2012KO DATUAK	2014-2012 ALDEA
Nigeria	1.412	1.061	351
Senegal	614	510	104
Mauritania	351	353	-2
Kamerun	314	311	3
Ghana	203	180	23
Mali	157	143	14
Ginea Bissau	149	147	2
Kongoko Errep. Dem.	140	149	-9
Ginea Conakry	109	96	13
Boli Kosta	61	52	9
Burkina Faso	38	38	0
Gambia	28	16	12
Kenya	46	48	-2
Egipto	19	18	1
Etiopia	17	17	0
Liberia	6	3	3
Benin	8	9	-1
Togo	3	2	1
Sierra Leona	5	5	0
Niger	n/d	3	-
Sudan	n/d	3	-
Tanzania	n/d	1	-
Uganda	n/d	3	-
Afrika Erdiko Errepublika	n/d	1	-
Yemen	n/d	2	-
Guztizko Orokorra	**3.680**	**3.171**	**+536/-14**

Iturria: Wassu Fundazioa, honako datuotan oinarrituta: EINen datuen arabera 2014ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren erroldako datuetan –2015eko otsailaren 20an egin genuen kontsulta–, eta 2012ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren erroldako datuetan –Espainiako Emakumeen Genitalen Mutilazioaren 2012ko Mapan (Kaplan eta López, 2013) kontsultatuta–.

n/d = no data

Oharra: Ez dakigu zergatik ez dagoen 2014ko daturik: EAEn nazionalitate horietako populaziorik ez dagoelako, edo EINen "Afrikako gainerakoa"/"Asiako gainerakoa" kategorian sartuta daudelako.

0-14 urteko nesken populazioaren bilakaerari soilik erreparatzen badiogu, 2012an 818 neska izatetik 2014an 1.018 neska izatera igaro da. Horretaz gain, adin-tarte horretan eutsi egin zaio nesken ordezkaritza handiena duten 6 nazionalitateen ordenari: Nigeria, Senegal, Mauritania, Kamerun, Ghana eta Mali, 2. taulan ikus daitekeenez.

2 Taula. EGMa egiten duten herrialdeetatik etorritako 0-14 urtek neskak EAEn, 2012- 2014

NACIONALITATEA	2014KO DATUAK	2012KO DATUAK	2014-2012 ALDEA
Nigeria	439	268	171
Senegal	166	142	24
Mauritania	99	95	4
Kamerun	86	77	9
Ghana	65	55	10
Mali	59	45	14
Ginea Bissau	17	19	-2
Kongoko Errep. Dem.	43	44	-1
Ginea Conakry	32	22	10
Boli Kosta	19	14	5
Burkina Faso	11	12	-1
Gambia	11	5	6
Kenya	3	2	1
Egipto	5	5	0
Etiopia	4	4	0
Liberia	0	0	0
Benin	2	3	-1
Togo	0	2	-2
Sierra Leona	2	2	0
Niger	n/d	1	-
Sudan	n/d	1	-
Tanzania	n/d	0	-
Afrika Erdiko Errepublika	n/d	0	-
Guztizko Orokorra	**1.018**	**818**	**+254/-7**

Iturria: Wassu Fundazioa, honako datuotan oinarrituta: EINen datuen arabera 2014ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren erroldako datuetan –2015eko otsailaren 20an egin genuen kontsulta–, eta 2012ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren erroldako datuetan –Espainiako Emakumeen Genitalen Mutilazioaren 2012ko Mapan (Kaplan eta López, 2013) kontsultatuta–.

n/d = no data

Oharra: Ez dakigu zergatik ez dagoen 2014ko daturik: EAEn nazionalitate horietako populaziorik ez dagoelako, edo EINen "Afrikako gainerakoa"/"Asiako gainerakoa" kategorian sartuta daudelako.

Lurraldearen araberako bilakaerari dagokionez, 2014an Bizkaian biltzen ziren EGMa egiten duten herrialdeetako emakumeen % 58 (1.800 bat emakume), Araban % 31 (ia 1.000 emakume) eta gainerako % 11 Gipuzkoan. 15 urtetik beherako neskak ere antzera banatzen ziren.

Udalerriei dagokienez, EAEn erroldatutako emakumeen % 55, gutxi gorabehera, Gasteizen eta Bilbon bizi ziren. Bi hiri horietan nazionalitate guztietako biztanleak zeuden, baina bi kasuetan, Nigeriako emakumeen kopurua Senegalgoen hirukoitza zen. Gasteizen Mauritaniako biztanle asko metatzen ziren. Bilbon, Ginea-Bissau eta Kongoko Errepublika Demokratikoa ziren bigarren eta hirugarren jatorriak, baina bi nazionalitate horiek ez zuten ia ordezkaritzarik lurraldearen gainerakoan. Durangon eta Barakaldon ehundik gora

emakume zeuden, jatorriak askotarikoak izanik. 50 emakume baino gehiagoko gainerako udalerriak Sestao, Irun, Donostia, Basauri eta Markina-Xemein ziren. Sestaon Nigeriako emakumeak ziren nagusi; Irunen eta Basaurin Kamerungoak; Donostian Senegalgoak; eta Markina-Xemeinen, EGMa egiten duten herrialdeetatik etorritako emakume gehientsuenak Senegalgoak dira.

2012tik 2014ra bitarteko bilakaerari erreparatuta, egiaztatuko dugu populazioaren lurralde-banaketari eutsi egin zaiola

3 Taula. EGMa egiten duten herrialdeetatik etorritako emakumeen lurralde-banaketa, bizi diren probintziaren arabera, 2014

NACIONALITATEA	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	GUZTIRA
Nigeria	588	147	677	1412
Senegal	105	172	337	614
Mauritania	146	95	110	351
Kamerun	82	56	176	314
Ghana	67	27	109	203
Mali	52	13	92	157
Ginea Bissau	5	2	142	149
Kongoko Errep. Dem.	4	0	39	43
Ginea Conakry	42	12	55	109
Boli Kosta	31	10	20	61
Burkina Faso	28	7	3	38
Gambia	6	1	21	28
Kenya	30	8	8	46
Egipto	7	8	4	19
Etiopia	0	6	11	17
Liberia	1	4	1	6
Benin	2	0	6	8
Togo	1	1	1	3
Sierra Leona	0	1	4	5
Niger	n/d	n/d	n/d	-
Sudan	n/d	n/d	n/d	-
Tanzania	n/d	n/d	n/d	-
Uganda	n/d	n/d	n/d	-
Afrika Erdiko Errepublika	n/d	n/d	n/d	-
Yemen	n/d	n/d	n/d	-
Guztizko Orokorra	**1.197**	**570**	**1.816**	**3.583**

Iturria: Wassu Fundazioa, honako datuotan oinarrituta: EINen datuen arabera 2014ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren erroldako datuetan –2015eko otsailaren 20an egin genuen kontsulta–, eta 2012ko urtarrilaren 1eko biztanleriaren erroldako datuetan –Espainiako Emakumeen Genitalen Mutilazioaren 2012ko Mapan (Kaplan eta López, 2013) kontsultatuta–.

n/d = no data

Oharra: Ez dakigu zergatik ez dagoen 2014ko daturik: EAEn nazionalitate horietako populaziorik ez dagoelako, edo EINen "Afrikako gainerakoa"/"Asiako gainerakoa" kategorian sartuta daudelako.

Emakume horiek EGMa pairatzeko duten arriskua baloratzeko garaian, herrialde bakoitzeko prebalentziari erreparatu behar zaio. Esan gabe doa arrisku-maila ez dela berdina Kamerungoa izan (prebalentzia % 1) ala Gineakoa izan (prebalentzia % 96). Horregatik, alde batetik, 3. taulan ageri diren lehenengo herrialdeak eta, bestetik, Afrikako EGMaren prebalentzia-mapa alderatzea interesgarria izango litzateke; hori eginda, prebalentziari buruzko honako datu hauek aterako zaizkigu: Nigeria % 27, Senegal % 26, Mauritania % 69, Kamerun % 1, Ghana % 4, Mali % 89, Ginea Bissau % 50.

Zenbait azterlanetan EGMaren arrisku-faktoreak hartu dituzten kontuan: etnia, amak EGM jasan duen, erlijioa eta amaren hezkuntza-maila. Kasu guztietan, eragin handiena izan duen faktorea etnia izan da, baina gainerako faktoreek ere eragin handiagoa edo txikiagoa dutela ikusi dugu, herrialdearen arabera (UNFPA, 2015).

Atal honen ondorio gisa zera esan dezakegu, EAEn kopuruak handitzen ari diren arren, munduko beste zenbait tokirekin alderatuz gero erlatiboki txikiak direla. Baina horrek ez du esan nahi fenomenoari arretarik eman behar ez diogunik, eta batik bat, beste nonbaitetik etorri eta gaur egun gure herrikide diren nesken kasuan, EGMaren prebentzioari. Arriskuan legokeen biztanle kopurua mugatua da eta geografikoki lokalizatuta dago. Horri esker, esku-hartzea hobea izan daiteke, alarmismorik eta estigmatizaziorik gabe, baina esku-hartze irmoa eta koordinatua izanik.

3. Oinarri etiko eta juridikoa

OINARRI ETIKOA

PRINTZIPIO ETIKOAK

Besteak beste, Italiako Bioetikako Batzorde Nazionalak 1998ko txostenean zioenari jarraiki, zalantzarik gabe, **EGMa etikoki onartezina da**, eta horregatik, Estatuek Emakumeen Genitalen Mutilazioa (EGM) eta neska adingabeen osasunerako bestelako Jardunbide Tradizional Kaltegarriak (JTK) deuseztatzeko neurri eraginkor guztiak hartzeko betebeharra dute[21].

Beste testu batzuetan, EGMa eragozpentzat hartzen da, norberaren sexualitatea kontrolatzeari dagokionez, emakumeen eta gizonen askatasun-berdintasuna onartzeari dagokionez, eta euren sexualitatea eta sexu- eta ugalketa-osasunerako eskubideak baliatzeari dagokienez. Horixe gertatzen da Pekingo Adierazpenean eta Ekintza Plataforman (1995), Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean (1966) eta Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Konferentzian (1994). Osasunaren Mundu Erakundeak mutilazioaren gaiari aurre egiteko ekintza ikuspegi horretatik begiratuta bideratzen da, emakumeek eta neskek ahalik eta osasun-mailarik handienaz gozatzeko eskubideari dagokion alderditzat hartuta, betiere sexu- eta ugalketa-eskubideak erabat baliatzearekin lotutako kontzeptu zabal baten barruan[22].

1979. urtean Nazio Batuek Emakumeen aurkako Diskriminazio Mota oro Desagerrarazteko Hitzarmena onartu zuten; hitzarmen hori 150 bat herrialdek sinatu zuten, eta horren ondorioz, praktika diskriminatzaileen aurka egiteko politika positiboak onartzeko premiaz jabetu dira gobernuak. 1. artikuluaren arabera, "emakumeen aurkako diskriminazioa" zera da, "sexuan oinarritutako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro, baldin eta, esfera politikoan, ekonomikoan, sozialean, kulturalean, zibilean edo beste edozein esferatan, emakumeek giza eskubideak eta funtsezko askatasunak baliatzea edo gauzatzea edo horiek guztiak emakumeei onartzea murriztu edo ezabatzeko helburua edo ondorioa badute, emakumeen egoera zibila edozein izanik ere eta gizonen eta emakumeen berdintasuna oinarritzat hartuta."

Hortaz, jardunbide makur eta bidegabea da, eta **bioetikaren oinarrizko lau printzipioetako** bi urratzen ditu.

- Lehenik, EGMak **malefizentziarik ezaren printzipioa** urratzen du ("primun non nocere": lehenengo gauza kalterik ez egitea). Jardunbide horrek neska eta emakumeen osasunean ondorio larriak eragiten ditu bizi osorako, eta beraz, EGMa pairatzen duten emakumeen osotasunerako eraso larritzat hartu behar dira. Osotasun fisikorako eskubidea Giza Eskubideen lehenengo Adierazpenean (Gizakiaren eta Herritarren Eskubideen 1789. urteko Adierazpena) bildu zen, bizitzarako, askatasunerako eta jabetza pribaturako eskubidearekin batera; Ilustrazioaren ondorio izan zen lehenengo adierazpen hori.

---

21 Adela Asua. Konstituzio Auzitegiko magistratua. EHUko katedraduna.

22 M. Elena Torres Fernández. Almeriako Unibertsitatea.

.

- Bigarrenik –baina horrek ez du esan nahi garrantzia txikiagoa duenik–, EGMak **justizia-printzipioa** urratzen du ("pertsona guztiek errespetu eta kontsiderazio berdina merezi dute"). Giza Eskubideen bigarren belaunaldian (1948ko Adierazpen Unibertsala) pertsonak, besteak beste, sexua dela-eta ez diskriminatzeko eskubidea onartzen da. EGMa onartezina da giza duintasunaren egungo onarpen-mailari dagokionez, pertsonaren besterenezintasun-estatusaren edukia hartzen baitu eraginpean generoaren ikuspegitik begiratuta. Ikuspegi horri esker, biktimak emakumezkoak izatearekin eta emakume izateagatik esleitzen zaien gizarte-rolarekin lotutako giza eskubideen urraketei berebiziko garrantzia eman zaie. Giza eskubideen urraketa horien modalitate larrienetako bat genero-indarkeria da, eta EGMa, lehen esan dugunez, genero-indarkeria mota bat da.

HERRIEN KULTURAK ETA TRADIZIOAK ERRESPETATZEA. NORAINO?

Gure gizarteak konplexuak dira; horrelako gizarteetan, askotariko kolektiboak daudela onartu behar dugu, eta kolektibo bakoitzak osasuna modu batera ulertzen du. Hortaz, hasieran, behintzat, ikusmolde horiek berez balioduntzat hartu behar dira, eta errespetatu egin behar dira[23]. Baina, tolerantziak noraino iritsi behar du?

Zenbait eremutan, multikulturalismoaren ideiara jotzen da etorkinen sektore batek inportatutako ohiturekiko tolerantzia sustatzeko. Multikulturalismoa (edo eman nahi zaion izena ematen zaiola) teoria bat da eta hainbat kulturaren arteko bizikidetza defendatzen du, nahiz eta kultura horietakoren bat agian ez den demokratikoa, gizarte demokratiko beraren barruan. Ez du inolako zerikusirik mestizajearekin, kultura-aniztasunarekin edo kultura desberdinen arteko bizikidetzarekin, betiere esparru komun batean. Multikulturalismoaren bereizgarria zera da, esparru komun hori ukatzea eta gizartea konpartimentu estankotan banatzea, tradizio edo kultura desberdinetako elementuak nahastu gabe. Ildo berean, gizartean kultura-aniztasuna garatzea interesgarritzat jotzen da, bizikidetza egokia izan dadin eta giza eskubideak errespeta daitezen, baina ez da multikulturalismoaren ideia sustatu behar, biztanleriaren sektore bat desabantaila-egoeran geratzen baita beti (sarri, emakumeak)[24].

Alemanian, Frantzian edo Erresuma Batuan aspalditik bizi duten gizarte multikulturala eta multietnikoa errealitate bihurtzen hasi da gure artean. Egia da, halaber, integrazioaren bideak ez duela ideien edo bizimoduen inposizioan oinarritu behar. **Pertsonak ez ezik, pertsonen sinesmen eta ohiturak ere errespetatu behar ditugu, baina ez edonola, edo ez den-denak**[25].

Kultura-aniztasuna sustatzeak ez du esan nahi kultura baten jardunbide edo tradizio guztiak ontzat eman behar direnik –ezta gure kulturakoak ere–, baizik eta gizaki ororen funtsezko berdintasunaren premisarekin eta askatasuna baliatzearekin bat datozenak soilik.

---

23 Xabier Etxeberria.

24 N. Martín Espildora.

25 José Manuel Moreno Villarés. Madrilgo 12 de Octubre ospitaleko pediatra.

Bartzelonako Medikuen Elkargo Ofizialak honako hau adierazi zuen komunikatu batean: «emakumeen genitalen mutilazioak urratu egin ditu pertsonaren oinarrizko eskubideak baliatzeko aukera bermatzen duten legeak: Konstituzioa, Autonomia Estatutua, Zigor Kodea, Erkidegoko araudia eta Eskubideen adierazpena»; halaber, honela dio: «jardunbide hori ezin da justifikatu kultura-elementu bat den argudioarekin, eta kultura-elementu den aldetik, errespetatu egin behar den argudioarekin. Lege- eta deontologia-esparruak babesten ditu, jada, norbanakoen eta kolektiboen aniztasun ideologikoa eta kulturala».

Uztailaren 8ko 3/2005 Lege Organikoaren Zioen Azalpenean honako hau aipatzen da: "Sexu-mutilazioak jardunbide tradizional dira zenbait herrialdetan –Europar Batasuneko herrialdeetara etorritako immigranteen jatorrizko herrialdeetan, hain zuzen–, baina hori ezin dugu justifikaziotzat hartu giza eskubideen urraketa galant hori ez prebenitzeko, ez jazartzeko eta ez zigortzeko".

Emakumearen osasunari kalte egiten dion eta sexualitatean eragina duen kultura-jardunbide hori egitea ezin da inolaz ere defendatu ikuspegi etikotik begiratuta[26].

OINARRI JURIDIKOA

Zigor-arauak komunitatearen jokabide onartezinekiko gaitzespenaren adierazgarri dira. Bestela esateko, debekuen katalogo bat finkatzen dute, bizikidetza baketsua eta gizarte baten antolamendu-printzipioak errespetatuko dituen bizikidetza bermatzeko behar-beharrezkotzat jotzen diren eskubideei eta gizarte-bizitzako baldintzei dagokienez. "Gutxienekotzat" jotako printzipio eta balio etikoak berresten dira, azkenean, estatu demokratikoen zuzenbide positiboan eta arau juridikoetan. Eta hain justu, "malefizentziarik ezaren" eta "justiziaren" printzipioak dira gutxienekoen balio etikoak adierazten dituztenak eta estatuetako legegintza-botereak pertsona guztiei eskatzen dizkienak, errespetatzen ez badira zigorra jaso daitekeela.

1948ko Eskubide Unibertsalen Adierazpena gorabehera, EGMa eta emakumeen aurka familiaren edo komunitatearen eremuan egiten diren bestelako indarkeria-ekintza asko ikusezin izan dira "pribatutzat" hartzen zirelako eta, hortaz, ez ziren jotzen giza eskubideak urratzen dituzten ekintzatzat.

NAZIO BATUAK

EGMaren aurkako borrokaren babesle garrantzitsuenetako bat izan da NBEa, Giza Eskubideen nazioarteko agendan kokatzen lagundu baitu; halaber, NBEren agentzia asko – Osasunaren Mundu Erakundea (OME), Nazio Batuen Biztanleria Funtsa (UNFPA), Emakumearen aurkako Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordea (CEDAW), Emakumearen Egoera Juridikoari buruzko Batzordea (CSW), Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa (UNICEF) eta abar– EGMa desagerrarazteko lanean ari dira. Hona hemen gertakari garrantzitsuenak:

---

26 José Manuel Moreno Villarés. Madrilgo 12 de Octubre ospitaleko pediatra.

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1951.
- Haurraren Eskubideei buruzko Adierazpena, 1959.
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna: 1966. urtean onartu zen eta sexuak eragindako diskriminazioa debekatzen du.
- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna: 1966. urtean onartu zen, eta giza eskubideak "gizaki orori datxekion duintasunaren" ondorio direla dio.
- Emakumearen aurkako Diskriminazio Mota guztiak Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Hitzarmena (CEDAW), 1979.
- Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmena, 1989.
- Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Adierazpena.
- Beijingeko Adierazpena eta Ekintza Plataforma, Emakumeei buruzko Munduko IV. Konferentzia, 1995.
- Haurraren Eskubideei buruzko Batzordearen azken oharpenak: Togo (1997); EGMa deuseztatzeko legeria onar dezaten agintzen diete esanbidez gobernuei, haurren eskubideak urratzen dituelako.
- Osasunaren Munduko Batzarra (2008/05/24): EGMaren arloan aurrerapen handia eragin zuen.
- Emakumearen Egoera Juridikoaren eta Sozialaren Batzordeak Emakumeen Genitalen Mutilazioa desagertzea izeneko ebazpen bat onartu zuen (E/CN.6/2010/L.8).
- Zehazki EGMari buruzko ebazpena (A/RES/67/146). NBE, 2012ko abendua.

AFRIKA

Afrikan herrialde askotan –Senegal, Mali, Burkina Faso, Mauritania edo Ghana– EGMari buruzko lege espezifikoa onartu dute; beste herrialde batzuk Zigor Kodea edo Kode Kriminala baliatu dute horrelako jardunbideak jazarri eta zigortzeko, eta beste zenbait kasutan ez dute lege espezifikorik sortu eta ez dute Zigor Kodea baliatu ere, baina indarrean dituzten legeak aplikatzeko modukoak dira. Hona hemen arau garrantzitsuenak:

- Giza Eskubideen eta Herrien Afrikako Gutuna; 1981eko uztailaren 27an onartu zen (CARTA BANJUL).
- Islamaren Giza Eskubideen Adierazpena. Kairoko konferentzia islamikoa, 1990.
- 2003ko ekainaren 23an, Afrikako 28 herrialdetako adituen topaketa izan zen Kairon.
- Emakumearen Eskubideei buruzko Giza Eskubideen eta Herrien Afrikako Gutunaren Protokoloa; Maputon onartu zen, 2003ko uztailaren 11n (MAPUTOKO PROTOKOLOA).
- Afrikan Genero Berdintasunari buruzko Adierazpen Irmoa, 2004ko uztaila.
- Dakarreko konferentzia, 2010eko maiatzaren 3an eta 4an.

EUROPA

EUROPAKO KONTSEILUTIK EGMaren aurkako hainbat legegintza-ekimen abiarazi dira, eta oinarrizko eskubideen urraketa oso larritzat eta emakumearen aurkako indarkeria mota justifikaezintzat hartzen da jardunbide hori, ez kultura- edo erlijio-tradizioen errespetuaren izenean, ezta hastapen-erritualen testuinguruan ere.

Europako Kontseiluak EGMari buruzko 1247 Ebazpena eman zuen 2001. urtean, eta estatu Kideei zera eskatzen zaie, "genitalen mutilazioa debekatuko duen legeri espezifikoa onar dezaten, eta genitalen mutilazioa giza eskubideen eta gorputzaren osotasunerako eskubidearen urraketa dela adieraz dezaten", eta arduradunak auzibidera eramatea "senitartekoak eta osasun-arloko profesionalak ere barnean hartuta, mutilazioa eragin duen indarkeriako zigor-karguengatik, baita mutilazio hori beste herrialde batean egiten bada ere".

Istanbulgo Hitzarmena (Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumearen kontrako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkakoa) 2011ko maiatzaren 11n sinatu zen, eta Espainiako Estatuan 2014ko abuztuaren 1ean jarri zen indarrean. Emakumeen aurkako indarkeria eta familia barruko indarkeria berariaz lantzen duen lehen tratatu europarra da, eta EGMa barnean hartzen du. Hitzarmena sinatu zuten herrialdeek –Espainiak, esaterako– mutilazioa nazioartean jazartzeko konpromisoa hartu zuten, justizia unibertsalaren murrizketa posibleak horretarako eragozpen izan gabe: "38. artikulua – Emakumeen genitalen mutilazioak

Aldeek legegintza-arloko edo bestelako neurriak hartuko dituzte honako hauek delitutzat tipifikatzeko, nahita egiten direnean:

a) Emakume bati ezpain handiak, ezpain txikiak nahiz klitoria osoki edo partzialki zatitzea, oztopatzea edo beste edozer modutan mutilatzea;

b) Emakume bat a) puntuan zerrendatutako edozein ekintza jasatera behartzea, edo xede horretarako baliabideez hornitzea;

c) Neska bat a) puntuan zerrendatutako edozein ekintza jasatera behartzea edo bultzatzea, edo xede horretarako baliabideez hornitzea."

EUROPAR BATASUNAk ere egin du EGMari buruzko adierazpenik, eta Parlamentuan hainbat ebazpen landu ditu Estatuei legeak aldatzeko eskatzeko, EGMa egiten dutenak jazartzearren; EGMa medikuaren kontrolpean egitearen aurka ere badago, eta hezkuntza-arloko eta kontzientziazioko programak egitea proposatu du.

Europako Parlamentuak Ebazpena onartu zuen 2009ko martxoaren 24an, EBn egiten den emakumeen genitalen mutilazioaren aurkako borrokari buruz (2008/2071 (INI); Ebazpen horretan, EGMaren mota edo maila guztiak gaitzetsi ditu, "emakumearen aurkako indarkeria-ekintza delako eta, ekintza horrek oinarrizko eskubideak urratzen ditu; hain zuzen ere, osotasun pertsonal eta fisikorako eta osasun mentalerako eskubidea, baita sexu- eta ugalketa-eskubideak ere", eta dioenez, "urraketa hori ezin da inolaz ere justifikatu edonolako kultura-tradizioen errespetuaren edo hastapen-zeremonien argudiopean".

EUROPAKO ESTATUAK konturatu dira neurriak hartu behar dituztela jardunbide horren aurka, euren herrialdeetan gero eta gehiago egiten baita migrazio-fluxuen ondorioz, eta lege-arloari dagokionez, honako hiru aukera hauetako bat hautatu dute:

- Legeri espezifiko berria txertatzea; hala nola Norvegia, Suedia eta Erresuma Batua.
- Lehendik zegoen legeria aldatzea, Zigor Kodearen artikuluen artean aipamen espezifikoak txertatzeko; hala nola, Belgika, Danimarka eta Espainia.
- EGMa debekatzea kalte fisikoei eta adingabeen abusuari buruz lehendik zeuden zigor-legeen bitartez; hala nola, Finlandia, Frantzia, Alemania, Grezia, Italia, Herbehereak, Suitza eta abar.

ESPAINIAKO ESTATUA

Espainian, EGM mota guztiak lesio-delitutzat hartzen dira, eta **Zigor Kodearen** ordenamendu juridikoan tipifikatuta eta zigortuta daude; **11/2003 Lege Organikoaren 149.** artikuluan, delituaren zigorra zehaztu da eta sei urtetik hamabi urtera bitarteko zigorra izan daiteke; adingabe baten kasuan, guraso-agintea, tutoretza, kuraordetza, jagoletza eta harrera baliatzeko gaitasungabetze berezia ere aplika liteke lau urtetik hamar urtera bitarteko aldi baterako.

2005. urtean 3**/2005 Lege Organikoa** ere onartu zen; bertan, jardunbide hori lurraldetik kanpo ere jazartzen da, hau da, delitua atzerrian egiten denean, betiere egileak edo kaltetua Espainiako lurraldean baldin badaude –kasu gehienetan horrela izaten da–. Horrek aurrerapausoa dakar giza eskubideen aurkako jokabideekiko justizia unibertsalaren printzipioan, zigorgabetasuna saihesten baita kasu jakin batzuetan; hain zuzen ere, jatorrizko herrialdera bidaiatzen dela baliatuta neskei EGMa egiten zaien kasuetan.

Berrikiago, **Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duen 1/2014 Lege Organikoa –martxoaren 13koa, justizia unibertsalari buruzkoa**– onartu zen. Lege hori onartuz gero, EGMari dagokionez legeria aldatu egin da; honela:

> «4. Era berean, espainiar jurisdikzioak eskumena izango du espainiarrek edo atzerritarrek lurralde nazionaletik kanpo egiten dituzten egitateak ezagutzeko, Espainiako legeen arabera egitate horiek tipifikagarriak badira. Esate baterako, delitu hauek sartzen dira multzo horretan, adierazitako baldintzak betetzen direnean:
>
> **1.** Emakumeen Aurkako Indarkeriaren eta Etxeko Indarkeriaren Prebentziorako eta Indarkeria horien Aurka Borrokatzeko Europako Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 11ko Hitzarmenak arautzen dituen delituak, baldintza hauek betetzen badira:
>
> - Espainiar baten aurkakoa izatea prozedura.
> - Ohiko bizilekua Espainian duen atzerritar baten aurkakoa izatea prozedura.
> - Egitateak gertatzeko unean Espainiako nazionalitatea zuen edo ohiko bizilekua Espainian zeukan biktima baten kontra egina izatea delitua, eta delitu-egitatea egozten zaion pertsona Espainian egotea. [...]

Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikuluaren arabera, adingabe bat arrisku- edo babesgabezia-egoeran dagoela detektatzen duten pertsonak edo profesionalak behartuta daude bai laguntza ematera, baita gertaeraren berri legezko ordezkariei ematera ere.

Bestalde, horrelako jardunbideen berri izan eta ezer ez egitea delitutzat jo daiteke osasun-profesionalen kasuan, jardunbide hori saihesteko edo jazar dadin sustatzeko betebeharra ez betetzeagatik; **Zigor Kodearen 450. artikuluan** tipifikatuta dago delitu hori.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, emakumeen eta nesken babes espezifikoari buruzko arau-esparruan bi lege sartzen dira:

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa.

Bi lege horiek EGMari buruzko nazioarteko, Europako eta Estatuko legeriaren esparruan interpretatu behar dira, betiere EAEn nahitaezko betetzekoak badira, eta giza eskubideen aldeko, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko eta haurren babesari buruzko arau guzti-guztiak aintzat hartu behar dira. Adibide bat ematearren, nazioarteko eremuan, diskriminazioaren debekua eta biktimak "eskubideen titulartzat" onartzea –giza eskubideen ikuspegiaren ardatz nagusi diren aldetik– honako itun espezifiko hauen arabera aplikatu behar dira: Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena eta Emakumearen aurkako Diskriminazio Mota guztiak Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Hitzarmena (CEDAW). Giza, genero- eta haur-eskubideen ikuspegi hirukoitz horrek eratzen du aplikatu beharreko araudia interpretatzeko esparru zabala, baita autonomia-erkidegoaren eremuan ere.

GATAZKA ETIKOAK JARDUNEAN. ERANTZUKIZUNAREN ETIKA

EnOsasun- eta gizarte-arloko profesionalen asistentziako eta prebentzioko jardunean, zaila izan daiteke erabakitzea noiz eta zein kasutan jakinarazi behar zaien agintari judizial edo fiskalei, eta gatazka etikoak sor daitezke.

Zigor-prozedurari dagokionez, EGMa argi eta garbi debekatuta egotea eta legez kanpoko jokabide onartezin dela adieraztea bateragarria izan daiteke gaitzespenaren zehaztasunarekin, betiere egoera pertsonalak aintzat hartuta. Egoera horiek tradizioaren indarrarekin lotuta daude; izan ere, tradizio hori betetzea eginbehar edo ezarpentzat hartzen dute, eta ez dira ausartzen tradizioa urratzera, haien sinesmenen arabera ondorio kaltegarriak izango dituztelako, ustez. Sinesmen horiek gainditu ahal izateko, azalpenak eman behar dira eta giroak ere egokia izan behar du, debekua zentzuzkoa dela ulertarazteko, baina betiere norberaren kultura-ezaugarriei eustearekin bateragarri izanik.

Emakumeen genitalen mutilazioak ez du erantzun bakar eta zehatzik. Kontua ez da harrera-gizartearen balioen eta migratzaileen balioen artean gatazka bat dagoela; bestela, gutxiengoaren balioa sakrifikatzea izango litzateke konponbide errazena. Era berean, ordenamendu juridikotik eta, zehazki, zigor-zuzenbidetik konponbideak eskaintzeko aukerak mugatuak dira, ordenamenduaren sektore horri "ultima ratio" izaera esleitzearen ondoriozko berezko ezaugarriak direla-eta. Ezin dugu ahaztu gure helburua jardunbide horiek desagerraraztea baldin bada, ez dela nahikoa eta ez dela egokia soilik zehapen-tresna baliatzea[27].

Osasunaren, gizartearen edo hezkuntzaren arloko asistentzia-jardunean dago EGMa desagerrarazteko lanaren arrakastaren zati garrantzitsu bat. Gidaliburu honetan edo beste batzuetan gomendatutako jardunen bitartez, lan horretan aurrera egin ahal izango dugu, baina gidaliburu honen benetako eta funtsezko helburua osasun-arloko profesionalei laguntzea da, gure artean bizi diren neskak, izen-abizenak dituzten eta gure osasun-zentroetara joaten diren neskak mutila ez ditzaten. **Profesionalek kasu zehatz bakoitzerako arau eta protokoloak aplikatuta jardun behar dute, eta hori ez da prozesu mekaniko edo automatiko bat: arazoak konplexuak direlako, testuinguru eta egoerak arraroak direlako, eta erabaki horien emaitza eta ondorioak zeintzuk izan daitezkeen ezin dutelako jakin, erabaki zailak hartu behar izaten dituzte, ardura osoz.** Eta hortxe, egoera horretan, erabakiak hartzeko prozesuan sortzen dira gatazka etiko garrantzitsuenak.

XX. mendearen hasieran bi etika mota bereizi ziren, elkarren kontrakoak: "**uste osoaren etika" eta "ondorioen etika**". Uste osoaren etikan bizimodu moraltzat hartzen da printzipio eta arauak egoera zehatzetan aplikatzen dituena, zirkunstantzia eta ondorioak kontuan izan gabe; aldiz, ondorioen etikaren xedea da ahalik eta emaitza eta ondorio onenak lortzea, ezein printzipiori atxiki gabe. Uste osoaren etikan etika printzipialistak –deontologikoak ere esaten zaie (deon = printzipioa) biltzen dira; eta ondorioen etikan, berriz, korronte etiko utilitaristak edo teleologikoak (telos = helburua)

Max Weber-ek hirugarren tarteko eredu bat proposatu zuen, muturreko bi eredu horien alternatiba moduan; printzipioak eta ondorioak aldi berean aintzat hartzen ditu, betiere erabaki zentzuzkoak, zuhurrak, neurrizkoak edo jakintsuak hartzeko. Tarteko mota horri "**erantzukizunaren etika**" deitu zion.

Erantzukizunaren etikak aldez aurreko bi tesitan oinarritzen dira:

- Errealitatea oso konplexua da, guk errealitateari buruz ditugun ideiak baino askoz ere konplexuagoa.
- Erabaki baten eraginpeko pertsona guztiek hausnarketa-prozesuan parte hartzeko aukera izan beharko lukete, beren argudioak aurkeztu eta, hartara, azken emaitza aberasteko; azken erabaki horrek parte-hartzaile guztiek libreki eta bortxarik gabe onartzeko modukoa izan beharko luke.

---

27 Adela Asua. Konstituzio Auzitegiko magistratua. EHUko katedraduna.

Gure erabaki moralak hartzeko garaian, printzipio moraletan adierazitako irizpide orokorrak ez ezik, egoera jakin batean gertatzen diren zirkunstantzia eta ondorio espezifikoen azterketa eta ebaluazioa ere hartu beharko genituzke kontuan. **Erabakiak soilik printzipioei erreparatuta hartzea arduragabekeria da. Gure erantzukizuna etorkizunera bideratzen da beti, eta beraz, ondorioak ere aintzat hartu behar dira, judizio moralaren osagai diren aldetik**. Judizio moral zehatzak lantzeko prozesuan, printzipioak itsu dira ondoriorik gabe, eta ondorioak, aldiz, huts dira printzipiorik gabe[28].

Ondorio moduan zera esango dugu, **printzipioak arau juridikoetan oinarritzen dira baina ez dira itsu-itsuan, automatikoki aplikatu behar, baizik eta kasu bakoitzaren testuingurua eta egoera zehatza aztertu ondoren, eta hartzen diren erabakiek izan ditzaketen ondorioak ere balioetsi ondoren**.

Legezko betebehar horiei eta, zehazki, delitu bat egin dela salatzeko betebeharrari dagokionez, honako zehaztapen hauek egin behar ditugu:

- Lehenik, gure Zigor Kodearen 450. artikuluak ez du behartzen delitu bat salatzera, eragoztera baizik, hori egin ahal izanez gero. Bestela esateko, profesional batek agerrarazitako EGM bat salatu behar ote den balioetsi behar da, betiere salaketa horrekin beste EGM bat prebenituko dela uste izanez gero, eta adingabearen interes gorena ez urratzeko ahalegina eginez, biktimizazio bikoitza saihestearren.

- Salatzeko betebeharra Prozedura Kriminalaren Legearen 259., 262. eta 264. artikuluetan xedatuta dago. 262. artikuluaren arabera, norbaitzuek, euren kargu, lanbide edo ogibideak direla medio, delitu publiko baten berri badute berehala horren salaketa egin beharko dute. Parterik eman ez duena medikuntza, kirurgia edo farmaziako irakaslea bada eta parte horrek beraren lan-jarduerekin zerikusia badu, orduan isuna ezin izango da izan 125 pezeta baino gutxiagokoa, ezta 250 pezeta baino gehiagokoa ere (gainerako kasuetan, 25 pezetatik 250 pezetara bitartekoa izango da).

Salatzeko betebeharra ez betetzeagatik jaso daitekeen zehapena hain txikia dela aintzat hartuta, alde batetik, eta bestetik, legegilearen asmoa argi eta garbi delitua egin ez dadin jokatzera behartzea dela ikusita, ondorio hau atera dezakegu: **justiziari jakinarazteko betebeharra ez da absolutua, erlatiboa baizik, eta laguntzeko eta prebenitzeko betebeharraren mende dago**.

Ezin dugu ahaztu **adingabearen ongizate gorena gailendu behar dela** beste edozer gauzaren gainetik, baita lege-betebeharren gainetik ere, zeren lege-betebeharrek ezin baitiote kalterik ekarri biktimari –kasu honetan, adingabeei–, eta biktimizazio bikoitza saihestu behar dela.

Balioesteko eta hausnartzeko ariketa hori egitea gomendatzen dugu gidaliburu honetan, baina zenbait kasutan, erabakiak hartzeko garaian segurtasuna eta ziurtasuna murritz

28 Diego Gracia.

dezake; hala ere, kasu jakin bakoitzean EGMa prebenitzeko eta eragozteko helburu bikoitza beteko duten erabaki zuhurrak hartzeko erantzukizuna onartzeko modurik onena izaten da, ahal den heinean, adingabearen interes gorena ahalbidetzearren.

ESKUBIDEAK, BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Alde batetik EGMa jasan duten pertsonen eskubideak, bestetik eskubide horiek errespetatzeko beharrezkotzat jotako betebeharrak eta, azkenik, kasu bakoitzean erabakiak hartzeari atxikitako erantzukizunak aintzat hartzen dituen ikuspegi hirukoitz horretatik begiratuta, inplikatutako agente guztiak hiru multzotan sailka ditzakegu: eskubideen titularrak, betebeharren titularrak eta erantzukizunen titularrak. Esan gabe doa EGMan inplikatutako agente edo eragile guztiek eskubide, betebehar eta erantzukizunak dituztela, baina agentea edozein izanik, ere, rol morala gailentzen zaie gainerakoei.

ROL MORALA	DEFINIZIOA	AGENTEAK
ESKUBIDEEN TITULARRAK	Eskubideen urraketa pairatu dutenak, baina aldi berean egoera horren transformazioaren protagonista aktibo direla, eta euren eskubideak eta euren komunitatearen eskubideak gauzatzeko gaitasuna dutela.	- EGMa pairatu duten emakumeak. - EGMa pairatu duten neskak. - EGMa pairatzeko arriskuan dauden emakume eta neskak.
BETEBEHARREN TITULARRAK	Eskubideen berme, betetze eta garapenarekin lotutako betebehar juridiko eta moralak dituzten erakundeak.	- Estatuak, bereziki, osasun-hezkuntza- eta justizia-sistema publikoak, eta une jakin batean Estatua ordezten duten gainerako agintaritzak, dela Iparraldean, dela Hegoaldean. - Nazioarteko Erakundeak.
ERANTZUKIZUNEN TITULARRAK	Arau eta protokoloak aplikatu behar dituzten subjektuak, betiere ondorioak aintzat hartuta, eta kasu bakoitzean gatazkan dauden balioak ahalik eta gutxien kaltetuko dituzten jardun zuhurrak bilatuta.	- Familiak. - Agintari eta lider tradizional (zibil eta erlijiosoak) eta "zirkunzisio-egileak". - Osasun-sektoreko profesionalak. - Epaile eta fiskalak. - Gizarte zibil antolatua: GKEak, elkarteak eta abar. - Komunikabideak.

Iturria: ODA´M 2013 (egilea: Zuleyka Piniella). Geuk egokituta.

Eskubideen titular diren agenteei bideratzen zaizkie gainerako agenteen (betebehar eta erantzukizunen titularren) jardunak; honako taula honetan laburbildu ditugu jardun horiek:

ESKUBIDEEN TITULARRAK

EGMA JASAN DUTEN EMAKUMEAK	EGMA JASAN DUTEN NESKAK	ARRISKUAN DAUDEN EMAKUMEAK	ARRISKUAN DAUDEN NESKAK
		Prebentzioari eta bitartekaritzari lehentasuna ematea esku-hartze judizialaren gainetik.	
Arreta espezializatua ondorioak minimizatzeko.		EGMaren ondorio kaltegarrien eta euren esku-bideen gaineko sentsibilizazioa eta heziketa.	
Belaunaldiarteko elkarrizketa sustatzea kultura-ondareari eta ondare horren alderdi positibo eta negatiboei buruz.		Horren ordezko erritualak edo babes-konpromiso kolektiboak.	
		Babes-mekanismoak ezartzea eta zabaltzea.	

Iturria: ODA´M 2013. Geuk egokituta.

BETEBEHARREN TITULARRAK

NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK	ESTATUA	JUSTIZIA	OSASUNA	HEZKUNTZA
Giza Eskubideak eta eskubide kolektiboak bermatuko dituzten arau-esparruak sustatzea.	Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Konpromisoak berrestea. Eskubide horiek gauzatzeko beharrezkoak diren politika-, lege- eta administrazio-arloko neurriak abiaraztea.	Lege-erreformak berrikusi, sustatu eta gauzatzea, Giza Eskubide indibidual eta kolektiboen Nazioarteko hitzarmen eta konpromisoen arabera.	Osasun-profesionalei prestakuntza espezifikoa ematea arriskuan dagoen populazioa detektatzeko, eta EGMak osasunean eragiten dituen ondorioak minimizatzeko esku hartzea.	Hezkuntza-arloko profesionalei prestakuntza espezifikoa ematea arriskuan dagoen populazioa detektatzeko.
Eskubideak betetzen direla zaintzea eta gomendioak ematea.	Estatu hartzaile eta igorleen arteko koordinazioa migrazioari dagokionez.	Beste lege-sistema batzuekin koordinatzea Giza Eskubide indibidual eta kolektiboak bermatzeko.	Profesionalen elkargoek jardunbidea medikalizatzearen aurkako adierazpenak egitea.	Jardunbide tradizional positiboen eta negatiboen gaineko hausnarketa eta eztabaida biltzen dituzten hezkuntza-curriculumak diseinatzea.
Nazioko ekimenei eta nazioarteko sareei laguntzea.	Esparru honetan espezializatutako gizarte zibil antolatuarekin koordinatzea.	Arrisku-kasuetan koordinatzeko neurriak abiaraztea.		
Esperientzia arrakastatsuak koordinatzea eta gizarteratzea.	EGMa eta bestekoa JTKk desagerrarazteko eta prebenitzeko lanetan aktiboki parte hartzea nazioarteko erakundeetan.	Jardunbidea uztearen aldeko pertsonei babesa eta laguntza ematea.	EGMaren ondo-rioen gaineko sentsibilizazioa eta heziketa. Arreta emateko eta, ahal den heinean, kaltea konpontzeko aholkularitza eta laguntza.	Jardunbide Tradizionalei buruzko kanpainak edo eskola-klubak.
JTKen aurka borrokatzen duten Giza Eskubideen defendatzaile eta aktibistei babesa eta laguntza ematea.				
Kultura-ondareari eta Jardunbide Tradizionalei buruzko ikerketa akademiko/unibertsitarioa sustatzea.				

Iturria: ODA´M 2013. Geuk egokituta.

ERANTZUKIZUNEN TITULARRAK

FAMILIAK	LIDER TRADIZIONALAK	OSASUN, HEZKUNTZA ETA GIZARTEAREN ARLOKO PROFESIONALAK	EPAILE ETA FISKALAK	GIZARTE ZIBIL ANTOLATUA	KOMUNIKABIDEAK
Belaunaldiarteko elkarrizketa sustatzea kultura-ondareari, JTKei eta EGMari buruz. Agintari tradizionalak sentsibilizatzea eta heztea. Kultura-eginkizun positiboak sustatzea.		Arrisku-kasuak zaintzea eta babestea.	Zehapenak neurtzea, adingabearen interes gorena ahalbidetzearren.	Garapen-programak, sentsibilizazioko eta heziketako kanpainak Giza Eskubideei buruz.	Konpromiso etikoak JTKei eta EGMari modu arduratsuan ekiteko.
JTKak eta EGMak ez erabiltzeko aukerak sustatzea.		EGMaren ondorioen gaineko sentsibilizazioa eta heziketa.	Osasun- eta gizarte-sistema publikoekin koordinatzea.	Kulturan garrantzitsuak diren figura tradizionalak identifikatzea eta EGMaren aurkako borrokarekin bat egitea.	Estatuak eta agintariak salatzea, eskubideekin lotutako konpromiso eta arauak betetzen ez badituzte.
EGMaren aurkako borrokarekin bat egitea prozesuko bitartekari moduan.		Mutilatutako emakume eta neskentzako jardun aringarriak.		EGMa egiteari uzten diotenei babes eta onarpen publikoa ematea.	
	Erlijioak JTKei eta EGMari buruz duen iritzia argitzea eta adieraztea.	Adingabeen fiskaltzarekin eta instrukzio-epaileekin koordinatzea.		Komunitate emigranteek jatorrizko komunitateekin izaten dituzten prozesu komunitarioetan laguntzea.	Gizarte zibil antolatuaren kanpaina eta ekintzak zabaltzea, eta EGMrik gabeko komunitateen adierazpenak sustatzea.

Iturria: ODA´M 2013. Geuk egokituta.